



Premio Micaela Portilla

Reunido el Jurado de la **IX Edición del Premio Micaela Portilla Vitoria a la mejor tesis sobre estudios feministas o de género –2020–**, analizadas las cinco tesis presentadas a esta convocatoria pertenecientes a:

- Departamento de Sociología y Trabajo Social
- Departamento de Filosofía de los valores y antropología social
- Departamento de Pintura

Ha decidido otorgar **el Premio Micaela Portilla 2020** a la tesis

**Hilekoaren politika eta kultura alternatiboen etnografía bat:
genero-konfigurazioak, gorputz-ahalduntzea eta ezagutza
kolektiboak**

Autora

Miren Guillo Arakistain

Directora

Mari Luz Esteban Galarza



RESUMEN

Hilekoaren politika eta kultura alternatiboen etnografia bat: genero-konfigurazioak, gorputz-ahalduntzea eta ezagutza kolektiboak izenburutzat duen doktore-tesi honetan, hilekoaren inguruan azken hamarkadotan garatzen ari diren hainbat jarduera eta proposamen kritiko aztertu dira, genero-harremanak eta gorputz- zein osasun-ideologiak aintzat hartuz eta agentzia prozesuei modu berezian erreparatu. Horretarako, hilekoaren esanahi biomediko eta kultural nagusiak aztertzeaz gain, horiei erantzuten dieten bestelako politikak eta kulturak aztertzea izan da ikerlanaren helburua; ikuspegi hegemonikoa auzitan jarri eta irudikapen zein iruditegi alternatiboak bilatzen dituzten ekintza eta gorputz-politikak ikertzea, alegia. Hala, proposamen eta testuinguru horietan gertatzen diren eztabaida feministak, genero-konfigurazioak eta -harremanak ikertu dira, baita berauetan sortzen diren aldaketarako sozializazioak ere. Era berean, prozesu horietan lagunarteko harremanek eta afektuek duten garrantzia arakatu da, ezagutzak sortzeko modu kolektiboekin eta bertan garatzen diren askotariko estrategia sentsorial-estetikoekin batera. Horretarako, berriemaileen bizipenak eta praktikak prozesu etnografiko sakonaren abiapuntutzat hartu dira. Izan ere, ikerketa burutzeko, prozesu horien dimentsio politikoa, afektiboa eta materiala uztartu dituen analisia baliatu da.

Ikerketaren abiapuntuan egon den hipotesia ondorengoa da: azken urteotan nabarmen areagotu diren hilekoarekin loturiko askotariko ekimenen azterketa zinez baliagarria dela generoaren, osasunaren eta kontsumoaren arloan gure jendartean gertatzen ari diren aldaketak ulertzeko. Hori dela eta, etnografia honek euskal gizartearen eta kultur sistemaren analisisira ere gerturatu gaitu, hilekoaren analisiaren bitartez gertakari desberdinei erreparatu zaielarik; hala nola, osasunaren aktibismo feministen genealogiei, teknologia feministei, ezagutzaren askotariko sortze-prozesuei, gorputz-politikak eta politika feministak egiteko orotariko moduei edota gorputzaren merkantilizazio-prozesuei.

Analisiaren testuinguru zientifikoa gorputzaren teoria sozialak, medikuntzaren antropologiak, teoria feministak eta zientziaren ikerketa kritikoak eratu dute bereziki, horri guztiari kontsumo-gizartearen ikuspegi kritiko bat ere gaineratu zaiolarik. Bestalde, ikerketak egiten duen proposamen metodologikoa ere berritzailea da. Etnografia sakon bat burutu da 2009-2019 urte bitartean, eta horrek, hilekoaren politiken baitako areagotze zein aldaketetan ez ezik, generoaren, osasunaren eta kontsumoaren arloan gertatzen ari diren aldaketetan barrentzeko aukera ahalbidetu du. Horretarako, hiru estrategia metodologiko nagusi baliatu dira. (1) Alde batetik, behaketa parte-hartzailea: autoreak 34 ekimen (hitzaldiak, tailerrak, arte-erakusketak...) behatu ditu. (2) Bestetik, elkarrizketa sakonen bidez, ekimen horien bultzatzaile eta parte-hartzaile, zein arlo horretan sortzen ari diren teknologien erabiltzaile diren 36 pertsona elkarrizketatu dira. Berriemaile bakoitza behin baino gehiagotan elkarrizketatu da, denboran zehar, bizi-, iritzi- eta pertzepzio-aldaketetan zein ikergaiaren eremuko aldaketetan elkarrekin sakonduz, etengabe dagozkion prozesu etikoak jarraituz. (3) Hirugarrenik, gaur egun gorputzarekin eta afektuekin loturiko zenbait ikerketatan



baliatu ohi den dimentsio autoetnografikoa ere aplikatu da, esperientzia horiek prozesuan izan duten eragin epistemologikoa esplizitu eginez.

Egungo testuingurua zinez aproposa da ziklo menstrualaren inguruan sortzen ari diren proposamenen gaineko azterketa kritikoak egiteko, eta, hartara, ikerketan azaleratu diren hainbat gairi buruzko eztabaida sozial sakonak garatzeko. Hala, ikerlan honetan, hilekoaren politika alternatiboak askotariko fenomenoak aztertzeke aukera aproposa direla erakutsi nahi izan da. Eta horretarako, ikerketako parte-hartzaileen prozesuak, esperientziak eta jakintzak elkarrizketan jarri dira ezagutza biomedikoekin, teoria feministarekin eta antropologikoekin, ezagutza eta pentsamolde hibridoak eta eraldatzaileak sortu asmoz.